

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1311

512/2026 EBAZPENA, martxoaren 9koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita 2020-2021-2022ko EPEko txanda irekiaren eranskineko esleipendunen estatutupeko langile finkoaren izendapena, administrariaren kategorian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren bidez, onartu egin ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2020-2021-2022ko eta Egonkortzeko EPE-etako hautaketa-prozesuak arautuko zituzten oinarri orokorrak (2022ko abenduaren 19ko EHAA, 240. zk.). Ebazpen hori Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 7ko 1510/2024 Ebazpenak aldatu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak irailaren 26an emandako 415/2024 Epaia betez.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren uztailaren 10eko 1216/2025 Ebazpenaren bidez, ebazpen hau aldatu zen: azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpena, zeinaren bidez onartu egin ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2020-2021-2022ko eta Egonkortzeko EPE-etako hautaketa-prozesuen oinarri orokorrak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1830/2022 Ebazpenaren bidez, onartu egin ziren estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-prozesua arautuko zuten oinarri espezifikoa administrariaren kategorian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan (2022ko abenduaren 27ko EHAA, 246. zk.). Ebazpen hori Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 7ko 1511/2024 Ebazpenak aldatu zuen.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 9ko 492/2026 Ebazpenaren bidez, argitaratu egin ziren lehiaketa-sistemaren (2020-2021-2022ko EPEa) txanda irekiaren bidez hautatutako izangaien behin betiko zerrenda eta destino hutsen esleipena administrazioko teknikari espezialistak lanbide-taldeko administrariaren kategorian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 31ko 561/2025 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeak gaitu ziren, beharrezko izapideak egin ditzaten Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2020-2021-2022ko eta Egonkortzeko EPE-etan deitutako hautaketa-prozesuetan esleitutako destinoez jabetzeari dagokionez.

Bat etorri Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren 16. oinarrian eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren uztailaren 10eko 1216/2025 Ebazpenaren laugarren eta bosgarren apartatuetan xedatutakoarekin, eta langileen arloan indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– EHAAn argitaratzeko agintzea 2020-2021-2022ko EPEko txanda irekiaren eranskinean jasotako esleipendunak estatutupeko langile finko izendatu direla administrariaren kategorian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.

Bigarrena.– Esleipendunek 5 egun balioduneko epea izango dute dagokien destinoaz jabetzeko, ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Esleitutako destinoaren zerbitzu-erakundeko Langileen Zuzendaritzan hartu beharko dute destinoaren jabetza. Horretarako, izangaiek hitzordua eskatu beharko dute lehenbizi, eta egintzan dokumentazio hau aurkeztu:

– NANA, pasaportearen edo gidabaimena edo dokumentu baliokidea Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kideren bateko nazionalitatea dutenentzat, edo Europar Batasuneko Itunaren arabera nahiz Espainiak berretsitako beste hitzarmen batzuen babesean nahiz lege arau baten bidez langileak estatu batetik beste batera libre ibiltzeko aukera aplikatzen zaien estatuetako nazionalentzat.

Espainiako nazionalitatea ez duten eta parte hartzeko eskubidea duten izangaiek nazionalitatea egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu beharko dute, bai eta, beste estatu bateko nazional batekin lotura badute, harekin ahaidetasun-lotura dutela eta haren kontura bizi direla edo haren kargura daudela egiaztatzen duten dokumentuak ere. Era berean, ezkontidearen zinpeko aitortpena edo hitzematea aurkeztu beharko dute, non azken horrek adierazten duen ez dagoela ezkontidearengandik legez bananduta eta, hala badagokio, izangaia haren kontura bizi dela edo haren kargura dagoela.

– Elkargokide izatearen ziurtagiria, deialdiaren oinarri espezifikotik hala eskatzen denean.

– Diziplina-espediente bidez izangaia administrazio publikoetako zerbitzuetatik kanporatuta ez dagoela eta eginkizun publikoetarako desgaituta ez dagoela adierazten duen zinpeko aitortpena edo hitzematea.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek, Espainiako estatuari buruzko aitortpenaz gain, zinpeko adierazpena edo hitzematea aurkeztu beharko dute, adierazteko ez daudela desgaituta edo egoera baliokidean, eta ez dutela diziplinazko zehapenik edo baliokiderik beren estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragozten dienik.

– Destinoa normaltasunez betetzeko behar den gaitasun psikofisikoa egiaztatzen duen azterketa medikoaren agiria, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Prebentzio Zerbitzuak emana.

– Erantzukizunpeko adierazpena, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikulua betetzeari buruzkoa, eta, horrez gain, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiria lortzeko baimena, urriaren 13ko 1314/2016 Ebazpenean xedatutakoaren arabera. Ebazpen horren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanpostuetan sartzeko eta jarduteko betekizunari buruzko jarraibide osagarriak onartzen dira.

Hirugarrena.– Emandako epe horretan aipatutako agiriekin bertaratzen ez direnak edo agiri horiek aztertuta antzematen bada betebeharren bat betetzen ez dutela, ezingo dira jabetu estatutupeko langile gisa esleitu zaien destinoaz. Ondorioz, deuseztatuta geratuko dira jarduerak, eta hori ez da eragozpena izango hasierako eskabidean faltsukeriaren bat jartzeagatik izan dezaketen erantzukizuna eskatzeko.

Era berean, interesdunei jakinarazten zaie, lanpostuaz jabetzeko ekitaldira dagokion epearen barruan edo, hala badagokio, emandako luzapenean, aurkeztu ezean, galdu egingo dutela hauta-probei buruzko ebazpenetan aitortu zitzaizkien eskubideak.

Azaldutakoaren arabera lanpostuaz jabetzen diren izangaiak dagokion zerbitzu sanitarioetako erakundean hasi beharko dira lanean, eginbidea bete eta hurrengo egunean.

Laugarrena.– Hautaketa-prozesuko oinarri orokorretako 21. atalean ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 9a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MIREN LOREA BILBAO ARTECHE.

2026ko martxoaren 25a, asteazkena

ERANSKINA
2020-2021-2022 OSAKIDETZAKO ENPLEGU PUBLIKORAKO
DESTINO BATEN ESLEIPENA LORTU DUTEN PERTSONEN ZERRENDA
ADMINISTRARIA
TXANDA IREKIA – LEHIAKETA-OPOSIZIOKO BLOKEA

NAN/AIZ	Izangai	Esleitutako destinoa	Hizkuntz eskakizuna / Derrigorrezko data
***1370**	Osa Tueros, Ibone	Donostialdeko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Donostiako U. Ospitalea- Donostia / San Sebastián / Kanpo-kontsultak-Ospitale barneko kanpo-kontsultak-Ospitale barneko kanpo-kontsultak / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Espezifikotasun gehiagorik gabe	2 2010-06-01
***8071**	Palomino Gonzalez, Susana	Bilbao-Basurtuko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Basurtuko U. Ospitalea-Bilbao / Ospitalizazioa-Ospitalizazioa-Ospitalizazioa / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Espezifikotasun gehiagorik gabe	2 2016-12-03
***6295**	Viteri Unzalu, Rosa Maria	Arabako ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak / AUOKo Administrazioa (Adriano-Vitoria-Gasteiz / Langileen Zuzendaritza-Langileen zuzendaritza-Aurrekont Kudea, Nomin eta Gizarte Segur / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Espezifikotasun gehiagorik gabe	2 2022-12-03
***1945**	Abad Infante, Maria del Mar	Bilbao-Basurtuko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Basurtuko U. Ospitalea-Bilbao / Ospitalizazioa-Ospitalizazioa-Ospitalizazioa / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Espezifikotasun gehiagorik gabe	2 2016-12-03
***4652**	Alfonso Ares, Monica	Zuzendaritza Nagusia / Erakunde Korporatiboa-Erakunde Korporatiboa / Zuzendaritza Nagusia - Bizkaia-Bilbao / Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza-L. Mailako Arreta Koordinatzaile Zuzendariorde-Lehn Arret odontologia eta PADI / Lanaldi zaitua-Lanaldi zaitu ohikoa-Espezifikotasun gehiagorik gabe	2 2013-12-03
***6611**	Sanchez Sanchez, Yolanda	Donostialdeko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak / Donostiako U. Ospitalea- Donostia / San Sebastián / Langileen Zuzendaritza-Langileen zuzendaritza-Langileen Zuzendaritza / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Espezifikotasun gehiagorik gabe	2 2021-07-02

2026ko martxoaren 25a, asteazkena

NAN/AIZ	Izangaia	Esleitutako destinoa	Hizkuntz eskakizuna / Derrigorrezko data
***7077**	Uriarte Maguregui, Miren Naiara	Bizk. Os. Mentaleko Sarea / Osasun Mentaleko Sarea-Egitura orokorrak / BOMSeko Administrazioa-Bilbao / Langileen Zuzendaritza-Langileen zuzendaritza-Langileen Zuzendaritza / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Espezifikotasun gehiagorik gabe	2 2011-06-01
***9245**	Bernal Lazaro, Lydia	Arabako ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak / Arab. U. Ospitalea - Santiago-Vitoria-Gasteiz / Arab. U. Ospitalea - Txagorrit-Vitoria-Gasteiz / Langileen Zuzendaritza-Langileen zuzendaritza-Profesionalari Arreta Emateko Arloa / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Espezifikotasun gehiagorik gabe	2 2022-12-03
***8560**	Perez Baños, Iratxe	Zuzendaritza Nagusia / Erakunde Korporatiboa-Erakunde Korporatiboa / Zuzendaritza Nagusia - Araba-Vitoria-Gasteiz / Ekonomia eta Finantzako Zuzendaritza-Azpiegituren Zuzendariordetza-Administrazioko Azpitalea / Lanaldi zatitua-Lanaldi zatitu ohikoa-Espezifikotasun gehiagorik gabe	2 2013-12-03
***3160**	Castrillo Cano, Elisabeth	Donostialdeko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak / Donostiako U. Ospitalea- Donostia / San Sebastián / Kudeaketa Sanitarioa-Harrera orokorra-Harrera orokorra / Goizez-Goizez lerrakorra, finkoa-Espezifikotasun gehiagorik gabe	2 2010-06-01
***8163**	Villarreal Izarzugaza, Miren Karnele	Tolosaldeko ESI / Lehen Mailako Arreta-Lehen Mailako Arreta / Villabonako Osasun Z.-Villabona / Lehen Mailako Arretako unitateak-Bezeroentzako arreta eremua-Bezeroentzako Arreta Eremua / Goizez-Goizez 10:00-17:00-Espezifikotasun gehiagorik gabe	2 2005-06-01
***3637**	Garcia Peña, Eva Maria	Donostialdeko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak / Donostiako U. Ospitalea- Donostia / San Sebastián / Langileen Zuzendaritza-Langileen zuzendaritza-Langileen Zuzendaritza / 2 Txanda-2 Txanda Go/A-Espezifikotasun gehiagorik gabe	2 2013-12-03
***5544**	Ugalde Larrea, Maria Lourdes	Donostialdeko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Groseko Anbulatorioa- Donostia / San Sebastián / Kanpo-kontsultak-Ospitalez kanpoko kanpo-kontsultak-Ospitalez kanpoko kanpo-kontsultak / Arratsaldez-Arratsaldez 13:00-20:00-Espezifikotasun gehiagorik gabe	2 2019-05-20